

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*


147n. Zenbakia Gabonilla (Abendua)

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**JUSTO MARI MOKOROA (G.B.)
(1901-1990)**

- IRAKASLEA
- LEKAIDEA
- IDAZLEA
- ESALDIEN BILLATZAILLEA

KULTUR ETXEA-ONDARROA

Idaz Sariaketak

BARRE TA IRRI SAILLA

Ipuin, kontakizun edo gertaera barregarri ta irrigarriak. Txisteak eta abar. Al dala Ondarroa edo ingurukoak.

Sariak:

6 foliotik gorakoak:

- 1 saria - 40.000 pta.
- 2 saria - 30.000 pta.
- 3 saria - 20.000 pta.
- 4 saria - 10.000 pta.
- 5 saria - 10.000 pta.

6 foliotik berakoak:

- 1 saria - 25.000 pta.
- 2 saria - 20.000 pta.
- 3 saria - 15.000 pta.
- 4 saria - 8.000 pta.
- 5 saria - 8.000 pta.

GURE GAIK SAILLA

Itxas biritza, bere itxas lapur, merkataritza, estropada, arrantza, itxas langintza, ondamendi, Kofradiak, arrain-gertapideak, tresnak, arrain-sukaldaritza, itxas iztegi ta abar.

Sariak:

20 foliotik gorakoak:

- 1 saria - 75.000 pta.
- 2 saria - 60.000 pta.
- 3 saria - 40.000 pta.

20 foliotik berakoak:

- 1 saria - 40.000 pta.
- 2 saria - 30.000 pta.
- 3 saria - 20.000 pta.

Bialtzeko epea: 1991 1ko urtarrilla'ren 31 azken dala.

Sari banaketa: 1991 1ko martxoaren barruan.

Epai maia: Kultur Etxeak izentatuko dau eta bere erabagia gora jo eziña izango da. Eskubidea eukiko dau sariak emon barik itxiteko edo ta egokien deritxon eran banatzeko.

Bakoitzak nai aiña lan agertu leikez, baiña sail bakoitzean pertsona bakoitzari sari bakarria emon leike, foliotan sailkatuta dagozan taldetan.

Saritutako lanak noiz-nai argitaratzeko eskubidea eukiko dau Kultur Etxeak, egillearen izen jatorra erabiliz.

Lan bakoitzeko lau kopia bialdu beariko dira, zuzenbide onetara: KULTUR ETXEA. Artabide 13. ONDARROA. Lanak lema bategaz bialduko dira, eta beste karta-azal baten bako-itzaeren izen eta ezaugarriak.

Lanak sortuak izan bear dira, ez beste izkuntzetatik itzuliak, eta osotasun baten beintzat argitaratu bakoak.

JOAN DA...

Beste gizandi bat joan yaku euskal alorretik. Inurria baizen langillea, eta jakintsua baizen apala, Aita Justo Mokoroa urteen geisotasunak jota, orioa amaitzen yakon krisaillu baten antzera joan yaku. Azken-aldiotan ez zan bere gelatik urteten, Aingeru Zaindaria eban bere arreba Ixidore'ek beti lagunduta. Ikertzera niñoakio-
nean, beti artzen ninduan irribarre gozo bat ezpanetan ebalá, bere barruko ontasunaren ezaugama zan irribanea.

Ia eun milla esaera jator idatziak edo entzunak jaso ditu, urteetan zear lanari emonda, euskera ekiko maitasun utsaz. Mezakotuta laster asi zan bilduma-lan ori egiten, eta aldiaren joanean, atsedinari uko egiñez, arriz-
-arri bere aalegiñaren jauregi yaukal ori eraiki dau, berak oi eban antzera, isillik eta euskerarekiko maitasunez gaiñezka.

Gora-beera batzuen ostean, noizbait uda onetan agertu zan bere "Ortik eta emendik" bílduma bikaiña eta Bilbao'ko eskolapiotarren ikastetxean egin zan bere liburu onen aurkezpena. Egun gogoangarria berarentzat baita an gengoan guztiontzat be. Liburu bat agertzen danean, egillearentzat seme baten jaiotza lakoa ei'da, eta egun aretan gaiñezkatzen yakon zoriona agiri eban Aita Justo'k, eta izan be, mundura etorritako bere ondo-
rengoaz, bitxi bat jaio dala euskal elertia en arloan esan daiteke. Geisotu zanean, bildur nintzan, bere lan
emaldoi ori il-aurretik berak ikusiko ete... baiña Jaungoikoak zorion ori emon eutsan, ondo irabazitakoa ain zuzen be...!

Eleizkizunak ospatu bitartean, bein eta barriro ezin nengikean burutik auxe uxatu: badoaz Euzkadi'ko gizon andiak bata bestearen atzetik ostentzen... Etorriko dira, baiña, itzitako utsunea beteteko areik lako gizandiak, gure aberriari ospe, argi ta anditasuna emon dagioen...?



Nire gogoa bildur eta itxaropena en artean murgilduta egoan, eta aitortu bearrean naz, itxaropentsua baiña bildur nintzala, gaurko giroa ikusirik. Dana-dala euskerari zor dautsaguna emoten jarraitu dagigun, eta egunen baten euskal alorrean lora dizdiratsuak agertuko al dira...!

Agur Aita Justo maitia. Gomuta-lantxu oneri, baiña, olerki bataz amaia emongo dausat, lekuren batetik berak irakurriko dualakoan...

Joan da isil-isillik
bizi izan zan antzean,
joan da gure artetik
dei gorena entzutean.

Gizandiak bezala
beti lanari lotua,
oldez genduan apala
izatez maitetsua.

Biotzari negarrak
darioz isillean,
arimari didarrak

Aita Justo galtzean.

Galdu da gure etxean
lora ederra bikaiña,
baiña gaurko illuntzean
yatorku aren usaiña.

Gure aberriko ortzian
galdu da izar argia,
zerurako bidean
bitxi garbi-garbia.

Nork aren utsunea
beteko Euskalerrian:

au naigabe gurea
oroi-miñez etsian...!

Ez gaitu itzi bakarrik
bera joan danean,
"Ortik eta Emendik"
izan daigun artean.

Agur Aita Mokoroa
aberriko erraldoia,
zuganantz egan doa
gure barruko otoia.

ZUBIRI'tar IÑAKI

EUSKALDUNOK ZER ESKATZEN DEGU ETA ZERGATIK? (VI EUSKAL-ASTEA)

SARRERA

Lan au egiteko, bi arrazoi izan ditut: Bat, lege-zar gaietan nere burua ain ez jakiña ikusi ta lotsatu izana eta bestea, espainiar adiskide batzuekin mintzatu ta aiekin gertatuari erantzun bat eman nai izatea.

Nork bere erriaren kondaira ez ezagutzea, ez jakitea, lotsagarria derizkiot; ezjakintasun onen aitzakirako, ikastetxean erakutsi etzigitela ta arrazoi bezela erabilli izan degu.

Goazen bigarren arrazoiarekin: 1977'ko ekaiñaren 29'a, San Pedro eguna zan. Ni Santander aldean nenbilen. Garai aietan Euskalerrria'n politika ta gizarte arazo latzak gertatu ziran; indarkerizko ekintza aiek zirala eta, Españi osoa urduri ta kezkatu zegon.

Nere adiskide ta lankide zan batekin alkar jo ta agur motx-motx baten ondoren, aurpegira ala jaurti ziran: Baña Manu! Euskaldunok zer nai dezuten jakin al diteke?

Bat-batean eta erantzuna aurkitu eziñik une batean ere egon gabe, ala erantzun nion: 1939'ko urrilla en 25'ko legea ezeztatu ta arterañokoan guk genduzkagun eskubideak gureganatzea.

Eta berak berriz galdezka: Eta lege orren esan-naia zer da?

Une artan presako zer-egin batzuk ba-nituan eta eguerdian alkartu ta argitzekotan gelditu nintzan.

Eguerdian alkar jo genduan, baña biak bakarrik izan bearrean, beste lau adiskide ta lankiderekina aurkitu nintzan. Ezbairrik gabe, goizean guk biok izandako izketal-diaren berri ba-zuten eta danak, Euskalerrria'n gertatzen zana en berri jakiteko irrikitzen zeuden; batez ere gure azken gogoia noraño zijoa ikasi nai zuten.

Lenengo argibideak ematen asi nintzan zoriz, aieta-ko batek, zorrotz eta arpegi illunarekin ala esan zidan: Emen gertatzen dana auxe besterik ez da. Zuek euskaldunak, Madril'go Gobernuak ematen dizkitzuten lagun-

tzekin eta beste probintzitakoan bizkar eta kaltetan, zuen bizikera obeagotzen ari zerate.

Astakeri au entzundakoan ni txundituta gelditzea ez da arritzekoa. Ain zuzen, "Goiz-argi" aldizkarian, Euskalerrria'k eta Madril'go Gobernuak diru-ar-emanetan urte artan izan zuten argibidea, irakurri berria nuan, baña nik ezer erantzun aurretik, ala bota zidan berriro:

—Eta bestela esaidazu: Bilbao'ko portu nagusia egiten, Estadua zenbat diru botatzen ari da?

— Esku-artean ez daukat —erantzun nion— Euskalerrria'k Estaduari zenbat diru ematen dion eta onek Euskalerrria'ri urtean zenbat biurtzen dion, baña Donosti'ko astekari batean irakurri berria dudanez, Gipuzkoa'k Estaduari joan dan urtean ogeita bi milla milloi peza eman dizkio ta Estadoak Gipuzkoa'n, iru milla milloi peza besterik ez du. kastatu. Beraz, urte batean eta Gipuzkoa'tik bakarrik, emeretz milla milloi peza eraman ditu ordañik gabe.

Nere erantzun azkarrak, nere adiskide guztiak itzik gabe utzi zituan, eta berealaxe jarraitu nuan esanez: Zuek danok karreradunak zerate ta Euskalerrria ta Estadoaren arteko diru-ar-emanak zuek uste zenuten gisa ortan daudela sinisturik ba'zaudete, espainiar erri xak zer ez du sinistuko? Gaur ez det asti aundirik, baña urrena etortzen naizenean, euskaldunok zer nai degun eta zergatik, luze adieraziko dizuet.

Nere itza betetzeko asmoz, kondaira gaietako liburu mordoia erabilli nuan eta jakingarri asko bildu nituala ikusiz eta ikastola ta ikastetxeetako aurrentzat ere mesedekoa izan zitekeala ta galdera erantzun eran, 125 orrialde bete nitun.

Argitaratzeko asmoa ere artu nuan, baña erri-euskeran idatzia zegonez, ikastoletan eta arrera onik egingo etzioletaren kezka, zortzi urte luzetan zokoan gordeta **det**.

Baña azken urte ontan, eusko politikari ta kulturako gizon ospetsuek egin dituzten adierazpenak irakurri ta,

txundituta gelditu ondoren, egindako lana erderatu ta argitaratu egin det.

Ara emen adierazpen oietako batzuk: Zuek danok ezagutzen dezuten eusko kulturako gizon jakintsu batek ala zion: Euskaldunen askatasun egarria asetzeko, naikoa litzake muga, Ebro ibaian jartzea; berak erakarri araziko lizkieken zailtasunak, amur eman araziko lieke.

Alderdi abertzale bateko zuzendarietako batek, beren azken elburua Euzkadi'ren askatasuna ez dala zion, berak ezin-bizia erakarriko lukela eta.

Abertzalea ez dan kulturako gizon argi batek, izparringi batean egindako adierazpenetan eta izki aundiekin ala zion: Gaur egun abertzaletasuna Euskalerrria'n ez da guztizkoa, trascendentea.

Alderdi abertzale batek bere Batzar Nagusian, España'ko Konstituzioari, ezbairik gabeko baietza ematea erabaki zuan.

Euzkadi'ren burujabetza eskatzen duten alderdi politikoak, ertzerakoi radikalizat joak dira.

Adierazpen oiek argi erakusten digute, abertzaletasuna zer dan ez dakian erritar asko dagola.

ITZALDIAREN ARIA

Euskalerrri osoa en kondaira osoa ordu batean mamitza oso lan zalla dala ba-dakit, baña nere alegintxoak egingo det.

Asteko, itzaldiaren aria adieraziko dizuet. Lendabizi, ego-aldeko lau lurraldeak 1200'garren urtea arte ta orduetik 1839'ra arte nola bizi ziran aitatu det. Ondoren, ipar-aldekoen berri motx bat emango det. Jarraian, karlisten bi gerren ondorioak izan ziran 1839'ko urtillaren 25'eko ta 1876'ko uztailla en 21'eko legeen esan naia. Gero, bi itz, diru-itun edo kontzierto ekonomikoataz. Arana Goiri'tar Sabin'en jokaera aitatu, gaurko egoerari begirada bat eman ondoren, gaur zer egin? ekin bukatzeko.

ARABA

Ego-aldeko lau eusko lurraldeak, Araba, Bizkaya, Gipuzkoa ta Naparroa, antziñan bakoitza bere buruarren jabe ziran, erakunde ta bizikera bereziekin, alkarrenganako batere menpetasunik etzutela; auzo onak bezela, lagun eta adiskidetasun osoan bizi ziran. Gogoan

izan, izkuntza bera, oitura berdiñak, legeek eta legeak egiteko eskubide ta jokera berdiña zutela laurak.

Bakoitza bere burua en jabe izanik, beren erabakiak artzeko eskubide osoa zuten, beste irurei ezer esan eta galdetu gabe.

Araba, Arriaga'ko elkargo edo kofradiaren bidez zuzentzen zan, urtean bein, San Juan egunean eta Arriaga'ko ballaran edo Lakua izeneko lekuan Batzar Nagusi bat izaten zuan. Bizkaya'k eta Gipuzkoa'k bezela, atzerritik eten gabe etorri oi ziran arerioei aurre egiteko, indartsuagoa zan norbaiten laguntza bear eta Arriaga'ko elkargoak, Araba'ko Kondea izena zeraman gudar-buru bat aukeratzen zuan; onen eginkizunak, gudaritzari buruzkoak bakarrak ziran; errigintzan zer sarturiko etzuan. XI'garren gizaldian Araba'ko Kondeak, Naparroa'ko Erregeak izan ziran. 1076'garren urtean, Naparroa'ko Erregea baztertu ta Kastilla'koa ekin konpondu ziran, gero, 1123'an, orduan ere Gipuzkoa'rekin batera, Naparroa'ko Erregeak izan ziran Araba'ko Kondeak, 1200'a arte; andik aurrera, Kastilla'ko Erregeak.

BIZKAYA

Bizkai'ko errigintza, Eleiz-aurre Batzar edo Ante-iglesias'en bidez zuzentzen zan; Erri-Eleiz-Aurre Batzarrek eta Ballara-Eleiz-aurre-Batzarrak, erri eta ballaraetako arazoak zuzentzen zituzten; eta bi Eleiz-aurre-Batzarreko lagunekin, Batzar Nagusiak osatzen ziran. Oiek Gernika'n bilduz, bear zituzten legeak emateaz gain, Bizkai'ko Jauna izendatzen zuten eta Araba'ko Kondeak bezela, asieran gudaritzari buruzkoak bakarrak ziran bere egitekoak, baña ondo konpontzen zirala eta, gero beste eskubide batzuk eman zizkieten; adibidez, Bizkai'ko Batzar Nagusiak erabakitako legeak baieztatzeko ta legezatzeko eskubidea. Bizkai'ko Jaunak era bere legeak eman zitazkean, baña legezatzeko, Batzar Nagusiak onartu bearra zan. Bizkai'ko lenen Jauna, Naparroa'ko Santzo Aundiena err' earen ondorengoa zan Iñigo Lopez izan zan. Gerora Kastilla'ko erregeekin konpondu zan, naiz eta lege-zarra zaintzeko ziña ondo betetzen ez bazuan, baztertu ta beste bat izendatzeko eskubide osoarekin; gerora ala gertatu zan, Kastilla'ko Enrike IV'na Bizkai'ko Enrike II'na zala, emandako ziña ondo bete etzualako, kendu ta bere arreba Isabel izendatu zuten Bizkai'ko Anderetzat; Isabel au urteen joanean, España'ko Isabel Katolikoa izan zan.

VI EUSKAL-ASTEA

GIPUZKOA

Gipuzkoa'ko errigintza, ballara, erri ta Batzar Nagusien bidez zuzentzen zan. Erri ta balladaetako Batzarrek, zugaitzpea egin oi ziran. Gipuzkoa osoko Batzar Nagusiak berriz, urtean bein eta txandaka emezortzi erritan biltzen ziran. Asieran, Batzar oien iraupena emezortzi egunekoa, zan, gerora amaika egunera jetxiaz. Batzar Nagusi oietan artutako erabakiak, Gipuzkoa'ko Aldundiak bete arazten zitun. Au Azpeiti, Tolosa ta Donostia'n txandaka biltzen zan. Aldundiaren egitekoak gora joan ziran era berean, Batzar Nagusienak bera joan ziran. Batzar Nagusi oiek ere, bear zituzten legeak emateaz gain, gudalburua izendatzen zuten. Araba'rekin bateratsu ibilli zan alor ontan; ala, aiek bezelaxe, 1076'garren urtea arte, Naparroa'ko Erregeek izan ziran gudalburu, urte artan Kastilla'ko Erregearekin konpondu ta 1123'a arte berarekin jarraituz. Urte artan, Araba'rekin batera, berriz Naparroa'ko Erregearekin alkar-tu ta orrelaxe jarraitu zuten 1198'a arte, 1200'garrenean Kastilla'ko Erregeari berriz lotu ta 1839' a arte beayekin jarraitzeko.

NAPARROA

Naparroak Euskalerrria'ren kondairan, beste eusko-lurraldeek ez bezelako ospe, indarra ta izena izan zuan eta gutxienez irureun urte luzetan beren zaitzalle izanik, eusko aberriaren gurasoa dala esan bear.

Naparrek beren lurralde ta ingurukoak zaitzeko etzuten iñungo erregeen laguntzaren bearrik izan, naiz eta alde batetik eta bestetik eta eten gabe, godotarrak, frankotarrak, arabearrak eta asturiarrak naiko burruka ta guda sortu. Gerora Naparroa'ko Erregetza izenarekin ezagutzen zana, asieran Iruña'ko Erregetza izena zuan eta bere zainpean, Naparroa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaya, Nájera ta Tudela zeuden. Alkarte ontatik lenengo alde egindakoa, Errioxa; Bizkaya ondoren eta azkenik eta biak batera, Araba ta Gipuzkoa, Naparroa bakarrik geldituaz. Ala irauñ zuan oraindik beste iya la eun urtetan. Azkenik, 1512'ko uztailaren 21'ean, Alba'ko Dukeak gudaroste aundi batekin eta napar beamontearrak lagun zitula, sartu ta lau illabete barru Naparroa osoa menderatu zuan. Amayur'ko burruka izan zan azkenekoa. Naparroa'ko Erregetza orduan bukatu zan, baña Kastilla'ko Lege Biltzarra 1515'an Burgos'en bildu ta Naparroa Kastilla'ri lotua gelditu arren, Naparroa'k Lege Zarrean zitun erakundeak, Lege-Biltzar edo Kor-

teak eta Aldundiak, len bezelaxe jarraitu zuten beren buru jabetasuna galdu gabe. Azkenean, Naparroa, Araba, Bizkaya ta Gipuzkoa'k bezelaxe, karlisten lenengo gerratearen bukaeran, 1839'an, bere eskubideak galtzeko bidean jarri zan.

Orain arteraño koan esandakoa argitzeko, auxe bakarra esango det: 1839'a arte, lau eusko lurraldeak beren buruaren jabe osoak zirala eta naiz eta Kastilla'ko Erregeekin itun edo ar-eman estuak izan, Lege-Zar edo Fueroaren indarrez, bear zituzten legeak eman eta bete arazteko eskubidea ta indarra izateaz gain, Kastilla'ko Erregeen aginduak eusko lurralde auetan etzuten ezer ikustekorik; onen adierazgarri, Kastilla'rako emen etzan zergarik biltzen eta bertako mutillak etzuten ango guda-ritzara joan bearrik, eta Euskalerrri'ko muga, Ebro ibaian zegon.

IPAR-EUZKADI

Motx-motx ba'da ere, Lapurdi, Benabarra ta Zuberoa'taz ere zerbait esan nai det. Ego-aldeko eusko lurraldeak bezelaxe, oiek ere, beren gerrateak izan zituzten. Bederatzigarren gizaldian normandotarren menpean erori ta gizaldi batean ala egon ondoren, Gaskuña'ko Dukeak normandarrak uxatu zitun eta Duke onek Naparroa'ko Santxo Aundiena erregearekin zitun guda-zorrrak kittatzeko, iru eusko lurralde oiek Naparroa'rentzat gelditu ziran. Amabigarren gizaldian, Akitania'ko Leonor Ingalaterra'ko Enrike II Erregearekin ezkontzerakoan, iru eusko lurralde oiek, Ingalaterra'ren esku gelditu ta irureun urtetan irauñ zuten era ontan. Ala ere, Errege onen seme zan Ricardo Leoi-Biotza'k 1191'an Benabarra Naparroa'ri biurtu ta 1226'tik aurrera, Naparroa'ko mugaz bestaldeko seigarren lurralde edo merindadea gertatu zan. Au ala izanik, 1512'an Alba'ko Dukeak Naparroa menperatu zuanean, Benaparroa ere bereganatua izango zala zirudin, baña ez; Juan de Albret'en seme zan Enrique II Erregearen mende gelditu ta ala jarraitu zuan, Enrique III Prantzia'ko Errege egin zuten arte. Au, 1589'an gertatu zan eta Enrike IV izena artuz, bere paperetan ala jarri oi zuan: Prantzia'ko ta Naparroa'ko Errege. Ingalaterra ta Prantzia'ko Erregeen babesean egon ziran guztian, betidandik zituzten erakunde ta legeak eman eta bete arazteko eskubideak, euskaldunon esku egon ziran. 1879'an Prantzia'n La Bastilla artu ta iraultzalariak "Feudalismo deuseztatze" legearen bidez, eusko erakunde guztiak kendu zituzten arte.

1200MIK 1830'RA EUSKALERRIA'REN EGOERA

1200'garren urtetik 1830'a bitarte, Euskalerrria'n aldaketa aundiak gertatu ziran. Bizkai'ko meatzetatik burnia Ingalaterra'ra bidaltzea; Kastilla'ko ardi-illea atzerrira bildatzea ta Venezuela'tik Donosti'ra ekarri oi ziran gaiak, bi uriburu oietan batez ere, ogibide berriak sortu ziran: dendari ta saltzalleena. Oietako geienak liberal iritzikoak ziran bitartean, nekazari errietakoek Lege-Zarreko eskubideek zaitzalle purrukatuak ziran eta eskubide oietako bat, muga edo aduana, Ebro ibayan edukitzea zan. Bilbao ta Donosti'ko dendari gizarte berri orrek berriz, muga ori iñundik ere Ebro'tik Auñamendietara eraman nai. Zergatik? Lege-Zarra maite etzutelako? Ez noski. Beren ustetan, eusko lurraldeek Kastilla'ko Erregeekin itun edo pakto bat zuten eta arterañokoan, Lege-Zarra edo Fueroa zaitzeko emandako itza ta ziña ondo betetzen zutenez, muga edo aduana lekuz aldatzeagatik bakarrik, Erregeen jokaera zergatik aldatu bear zuten? Bestalde, mugak Auñamendietara eraman ezkeru, Kastilla aldetik zetozen aleak, garia batik-bat, merkeago erosteko aukera izango zuten eta bertako gauzak eta atzerritik ekarritakoak España'ra saltzeko bideak asko ta asko zabalduko ziran. Emendik sortu zan nekazaritza erakundeetako ordezkarien eta dendari ta saltzalleen arteko alkar konpondu eziña.

Ogibide ezberdiñetakoak izateak, politikako iritziak era ala izatea bultzatzen arazi zuan bezela, 1799an España ta Prantziaren artean Convención izeneko gerratea sortu zanean, Ondarrabi ta Donosti'ko gazteluek berealaxe amur eman zuten bitartean, nekazari ta barru aldekoek, talde ttikitian gerrilla eran amaika buruauste sortu zuten. Gauza bere gertatu zan Prantzia 1808'an España osoaren jabe egin zan garayean. Bilbao ta Donosti'koek prantziarrekin bat egin da jokatu zuten bitartean —Bilbao'ko Urkijo ta Mazarredo prantziarrak Madrid'en sortu zuten gobernuko ministrari izateraño—, nekazari errietakoek berriz ere taldeka gerrilla eran, Jauregi ta Mina buruzagien zuzendaritzapean, gogor ekin zioten, euskaldunen erakunde ta eskubideak kendu zituzten prantziarren aurka. Gasteiz eta Irun'go San Marzial'go burrukak galdu ondoren, prantziarrak beren etxera joan bear izan zuten.

España ta Prantzi'aren arteko bi gerrate oien xeetasunak eman nai izatea, geroxeago karlisten gerrateekin gertatuko zana obeto ulertzeko adierazia da.

KARLISTEN LENENGO GERRATEAREN ZERGATIA

España' aspalditik, eusko lurraldeen Lege-zarra erabat deuseztatzeko alegiñak egiñaz zetorren. Ala, 1802'an Madril'go Gobernoak, "Uccionario de la Real Academia de la Historia" argitaratu arazi zuan, euskaldunen Lege-zarra, España'ko Erregeek emandako baimen eta eskeintzak besterik etziralala ta Kastilla'ko erregeekin itun edo paktoak egin aurretiko eskubideak, utsaren ondorengoak zirala erakutsi naiaz. Geroxeago, errioxar Llorente kanonigoari, "Noticias históricas de las tres provincias vascongadas" idatzi arazi zioten, gezurretan, eusko Lege-zarra edo Fueroa, Erregeek emandako eskubide xixtriñ batzuk besterik etziralala esanaz. Naparroa ere etzuten pakean utzi; 1820'an, "Ensayo crítico de la legislación de Navarra" atera zuten, Naparroa'ko Erregetza egundaño etzala aske izan eta beren Lege-Zar Orokorra etzala legedi berezia, irakurgai bezela norbaitek idatzia baizik. Eusko agintariak etziran lo egon eta Aranguren eta Sobrado jaunek lendabizi eta Pedro Novia de Salcedo'k ondoren, Llorente'k kondaira lotsa aundirik gabe aldatu egin zuala argi ta garbi erakutsi zuten, "Defensa histórico-legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipuzcoa" liburuan. Eta Yanguas jaunak, erdi egi erdi txantxetan, bere "Contragerigonza" izeneko liburuan, Naparroa'ri buruz esandakoa parregarri jarri zuan.

Liburu zabalkunde oiekin, España osoa lau eusko lurraldeek zituzten Lege-Zar edo Fueroa en aurka jarri nai izan zuten.

Giro ontan, España'ko Fernando VII' ren eriotza gertatu zan. Errege au ill aurretik, Salica izeneko legearen indarrez, emakumezkoek Erregiñ izaterik etzuten. Fernando VII'k alaba bat bai, baña semerik etzuanez, bere anai Carlos V'k izan bear zuan Errege, baña Fernando VII'k ill aurretik salica lege ori deuseztatu ta bere alaba Isabel II izendatu zuan oñordeko. Ala, bera il zanean, iru urte besterik etzitian Isabel II Erregiñ izendatu zuten, bere ama Maria Cristina erregiñ-ordeko zala.

Carlos V' ren asarrea zenbateraño(koa izango zan konaturatzen ez da zalla ta lenengo egunetik, España'ko Errege izateko alegiñak egiten asi zan.

Madrill'en Errege bat izan edo bestea jarri euskaldunontzat ajola gutxikoa zan; jartzen zan Erregea jar-

VI EUSKAL-ASTEIA

tzen zala, Lege-Zarra edo Fueroa gorde ta zaituko zuala ziñ egin ezker, guztia konpondua zegoen.

Madrill aldean Carlos V'k bere aldeko giro onik aurkitu etzuanean, laguntzalleak nunbait aurkitu bear eta Euskalerrri'ra etorri zan, Isabel II ta liberalak agintzen jartzen ba'ziran, eusko Lege-zarra kendu egingo zutela ta bera jartzen ba'zan berriz, Lege-Zarra gorde ta zaitzeko ziña egingo zuala esanaz.

Madrill'en Errege bat izan edo bestea izan euskaldunontzat berdin xamarra izan arren, Lege-Zarraren alde burruka gogor egiteagatik, karlisten gudarostean sartu ta sei urte luze iraungo zuan gerratera joan ziran. Garai artan euskaldunok buruzagi on bat izan ba'zuten, liberalak eta fuerozaleek alkar artu ta geldi-geldirik egon al izango zuten.

KARLISTEN LENENGO GERRATEA

Fernando VII 1833'ko urrilaren batean il zanarekin batera, iru urteko bere alaba Isabel II erregin izendatu zuten, bere ama Maria Cristina erregin ordeko edo rejente jarriaz. Garai artan Prantzia'ko mugaren urrean zeudelako, Donosti ta Iruña'n, España'ko gudari asko zeuden; gutxiago, Bilbao ta Gasteitz'en. Orrela, Donostia ta Iruña Isabel erregiñaren alde jarri ziran bezela, Bilbao ta Gasteitz, Carlos V'ren alde erori ziran.

Castañón jenerala Donosti'tik irten eta Tolosa menperatu zuanean, bere barrengo griñak argi gelditu ziran, bertan emandako agirian: Ala zaion: "Bizkaya ta Araba'k aurka egitea erabaki dutelako, bi lurralde oietako fueroak deuseztatuta, kenduta gelditzen dira eta Gipuzkoa'n, Gobernuaren alde gelditutako errietan bakarrik iraungo dute fuero oiek". Orrelaxe asi zan sei urte luze iraungo zuan gerratea. Izketaldi ontan ez noa gerrate onen xeetasun geieirik ematea, baña oñarrizko izandako gertakizun batzuk aitatu nai ditut. Gerrate geienetan bezela, alde batekoak bezelaxe bestekoek era izan zituzten beren garaipenak eta Zumalakarregi'ren izena azaldu gabe ezin egon-ba eta gerratea asi ta andik iya bi urtera, 1835-ekaiñak 15 karlistek Bilbao inguratuta zutela, Zumalakarregi ankeak zauritu ta andik zortzi egunera il zanean, karlisten artean euntalako nastea sortu zan, baña liberelek etzuten ez indarririk eta ezta karlisten une larri ura bere alde jartzeko jakinduri ta azpikeririk ere. Bai talde batekoek eta bai bestekoek diruz urri zebiltzan eta iñor iñor ezin menepratuz zebiltzala, or nun agertzen dan Berastegi'ko eskribau edo notarioa zan

Muñagorri jauna, bi aldekoiei pake egoki bat eskeñiaz. Pakea ta Lege-Zarra zan Muñagorriren eskeintza ta elburua, ta bere iritziz, Lege-Zarraren aldeko lanak eta burrukak, Carlos V'garrenarengatik banakatu egin bear ziran. Garai artarako, Espartero jenerala, Ipar-aldeko gudarostearen Buruzagi izendatua izan zan eta Hernani'n, lau eusko lurraldeetakoie ala esan zien: "Euskaldunok! Eten gabe atxioetxen engañatzen zaituzten oiek, zuen fueroen alde burruka zabiltzatala diote, baña ez sinistu. Erregiñaren Buruzagi bezela ta bere Gobernuaren izenean, zuen fueroak galdu beldur ba-ziñaten ere, len bezelaxe izango dituzutela itz ematen dizuet eta egundaño ez degula zuen fueroak kentzeko asmorik izan". Itz oiek etziran itsumustuan esandakoak; une artan, gerratea bukatzeko irtenbiderik etzuten ikusten eta geiegi luzatzen ari zan. Muñagorri'k alegiñak egin zitun, baña konpondu eziñik beste iru urte joan ziran. Garai artan, 1838'ko ekaiñaren 25'an, karlisten Buruzagi Nagusi, Maroto Jenerala izendatu zuten, baña ordurako, Muñagorri'ren Pakea eta Fueroak eskeintza zala eta, karlisten buruzagi españiar eta euskaldunen artean, alkar konpondu ezin aundia zegoen. Bat-batean, Muñagorri'ren asmoak alde batera utzi ta Madrilgo Gobernuak, Maroto jenerala ta ingeles Gobernoa en ordezkari zan Lord Hay bitarteko artzen ditu eta bere taldeko iñori ezer esan gabe, Maroto, Espartero jeneralaren ordezkari batekin mintzatzen da. Izketaldi onek, karlisten gudarosteko euskal buruzagien artean asarre aundi sortu zuala eta baretzeko, Maroto'k bere taldeko iru jeneral, brigadier bat eta intendente bat il arazten ditu Lizarra'n. Karlisten une larri ori zala eta, liberalak gogor ekin zioten eta Gamarra'n, Balmaseda'n eta Urkiola'n garaipen aundiak izan zituzten, baña ala ere menperatu ezin. Une ontan berriz agertzen da ingeles Lord Hay; 1839'ko uztaillaren 29'a da. Ingeles onek Maroto'ren eskeintza Espartero'ri aurkezten dio: Gerratea bukatu, karlistan jeneral eta ofizialen malla ta lan-sariak eta eusko fueroak ontzat ematea. Espartero' bat dator, eusko fueroak ontzat ematea ez gañontzeko gai guztietan; Madril'go Lege Biltzarraren berririk gabe, baietzarik ematerik ez duala dio. Maroto ta Espartero'k alkarrekin billera batzuk egin ondoren, Maroto'k Carlos V'garrenarekin itz egitea erabakitzen du, ta onek, Elgeta'n eusko gudariekin bildu ta galdera au egiten die: Gerratean aurrera ekiteko gertu al zaudete? ta danak ao batez, Gora Fueroak! Gora pakea! erantzun ondoren, Carlos erregeak Prantzi'runtz alde egin zuan. Andik egun batzuetara, Maroto ta Espartero'k, "Bargara'ko besarkada"rekin ezagutzen dan itun edo konbenioa izen-

petuko dute. Bertan, lenengo atalean, ala dio: "Espartero Buruzagiak, gogoz eta arreta biziz, fueroen ematea edo aldatzea Madril'go Lege Biltzarrean eskatuko zuala emandako itza betetzeko gomendatuko dio Gobernua-ri". Beste bederatzi ataletan, karlista militarren eskubi-deak aitatzten ditu. Fueroen etorkizuna Madril'go agintarien esku gelditzen zala ta naiko goibel gelditu ziran eusko agintari ta gudariak. Espartero bera konturatu zan euskaldunen kezka ortaz eta ala esango die: "Ez kezkarik eduki! Zuen fueroek leenean geldituko dira ta beren aurka iñor jeikiko balitz, beren alde lenengo aterako litzaken ezpata, nerea izango litzake".

Espartero'ren itzak oso egokiak izan ziran, baña gero ikusiko zan bezela itzak besterik etziran izan. Bergara'ko itun edo konbenioa, 1839'ko dagonillaren 29'an Oñati'n gertutu zuten eta andik bi illabetera baño lenago, Madril'go Lege Biltzarrean, 1839'ko urrillaren 25'eko legea eman zuten. Batetik bestera 55 egun besterik ez dira. Presa aundia zegon, bein betirako eusko fueroa legez deuseztatzeko. Lau eusko lurraldeetako agintariek milla alegin egin zituzten, Lege-Zarra leenean gelditze-ko eskatuz, baña gutzia alperrik izan zan.

ITUNDUTAKO NAPARROA'KO LEGEA; KARLISTEN BIGARREN GERRATEA

1839'ko urrillaren 25'eko legearen lenengo atalean ala zion: "Eusko Probintzi ta Naparroa'ko Fueroak, España'ko Konstituzio batasuna en kalterik ezean baieztatzen dira". Batere argirik gabeko atala zala eta, eztabaida ta izketaldi sortu ziran, Madril eta Euskal-erriko agintarien artean; euskaldunek ematen zituzten arrazoiak erantzun eziñak izan arren, batere jaramonik egin gabe aurrera zijoazen. Biarthean, lau eusko lurraldeetako agintariek, tartean naparrak asmo berarekin zira-la, bururik makurtu gabe Lege-Zarraren alde gogor jokatzea erabaki zuten.

1839'ko urrilleko 25'eko legea en bigarren atalak ere naiko buruauste sortu zituan. Ala zion: "Egokiera on batek agintzen duan bezain laster, eta aurrez Euskal Probintziak eta Naparroa entzun ondoren, Erregetza en Konstituzio ta Nazioaren onarekin bat datorrela, ayei ondo dagokien ezinbesteko foruen aldaketa egiteko eskatuko dio Gobernuak Lege Biltzarrari". Bigarren atal orrek sortu zituan eztabaidak 37 urte luze iraun zuten,

baña bakoitza berearekin gelditu arren, Madril'go Gobernu-a beti bere asmoekin aurrera. Ala, 1839'ko Naroaren 16'an, beste lege ura eman eta andik illabete baño len, lege arren osagarri bezela, Decreto bat eman zan, Udal eta Batzar Nagusietako ordezkarien izendatzea, fueroen arabera egin bear zala bai, baña España'ko Konstituzioak agintzen zuan eran, eusko lurraldeetatik España'ko Lege Biltzarrera beren ordezkariak bidaltzera bear-tuaz. Batzar Nagusiek etzuten ontzat eman Dekreto au, eta Madril'ekin ezer ikustekorik etzutenez, Madril'go Lege Biltzarrera ordezkariak ez bidaltzea erabaki zuten, baña meatxua-meatxuaren gañean bidaliz, ala bearrez edo obe-bearrez, beldurtuta noski artara jarri ziran.

Alako batean, naparrak beren aldetik beren itun edo tratua egiteko asmoz, Madril'a joan eta beayentzat bakarrik konponketa eskatzen asi ziran. Ortan zeudela, 1840'ko urrillaren 12'an, Espartero jeiki, Maria Kristina Erregiñ-ordea Prantzia'ratu ta bera jarri zan Errege-ordeko edo rejente. Berealako batean, Naparroa'k Ebro ibayan zuan muga, Auñamendietara eraman, eta Espartero'k berak izendatutako Gobernadoreak, Naparroa'ko Aldundirako jarritako aldunekin, 1841'eko dagonillaren 16'ko itundutako (paccionada) legea eman zuan. Lege orrekin, Naparroak Fueroari esker zitun eskubide guztiak galdu ta España'ko beste probintzien jokabide berdiñetara jarri zan. Aldundi ta Udalak, mugak, zerga jasotzea ta gudaritza, beste probintzietan bezelaxe egin bearrean aurkitu ziran.

Araba, Bizkaya ta Gipuzkoa'ko Aldundietako ta Batzar Nagusietako agintariek bildu ta 1839'ko urrilleko 25'eko legearen aurka gogor ekitea erabakitzen dute. Burruka oni esker, Naparroa'k baño 35 urte geiagotan Lege-Zarraren eskubideekin egon al izan zuten. Gogoangarriak benetan, Bizkai'ko Batzar Nagusietako agintariek agertu zuten kemena ta fueroen aldeko zaletasuna.

Espartero'ren errege-ordetzak bi urte besterik etzuan iraun, 1841'tik 1843'a arte, baña bitarte ontan, lau eusko lurraldeak España'ko beste probintziekin parekatu zitun eta bota eta kanporatu zanean, leenera etorri ziran, baña naiz eta artean Lege-Zarra indarrean egon, fueroetan aldaketak nola egin aztertzeke, eusko ordezkariak izendatzea beartu zuten.

Azterketa luzeak eta konpondu eziñak ogeita ama-bost urtetik gora iraun zutela esan det arestian, baña bitarte ortan España'n aldaketa aundiak gertatu ziran. 1869'an, 1870'an eta 1871'an gerrate ekiñaldi batzuk ere

VI EUSKAL-ASTEA

sortu zituzten, baña erakunderik, izkillurik eta dirurik ez eta Prantzia'ra iges egin bearrean aurkitu ziran karlistek.

Ortan, España' Errege, Saboya'ko Amadeo izendatu zutela ta berriz ere karlistek aitzaki billa; noski Amadeo Erregearekin eusko fueroak bezelaxe, erlijioa arrixkuan zegola ta liberalismoa ta masoneria gaindituko zirala oyukatuz, karlisten bigarren gerratea 1872'ko abenduan garaipen arrigarriekin asi zan. España'ko

militarren artean batasunik eta erakunde onik etzegola ta Amadeo Erregeak España utzi ta Itali'ra alde egin zuan. 1873'ko otsaillaren 1 Fen Errepublika jarri ta Pavia Jenerala Buruzagi nagusi izendatzearekin batera, Pakea ta Fueroak eskeñi zitun, baña karlistek arro zeuden zituzten garaipenekin eta aurrera jarraitu zuten, baña erabateko garaipenik eskuratu gabe. España'ko Errepublika gaizki zijoala ta militarrek berriz erregetza ezarri zuten, 1874'ko abendua en 29'an eta Alfonso XII Errege izendatu. Onek ere pake eskeintza egin zuan, baña karlistek arro oraindik eta etzuten onartu. Gerrateak oraindik urte terdi geiago iraun zuan, baña azkenean 120.000 gizonekin etorri ta 1876'ko otsaillaren bian bukatu zan.

1876'KO UZTAILLAREN 21'EKO LEGEA

Gerratea bukatzearekin batera, España osoan eusko fueroen aurkako zabalkunde ta itxillu biziak sortu ziran, azkeneko gerrateak eusko fueroak zirala bide sortu zirala eta bein betirako fuero aiek zapaldu ta kentzeko eskatuz. Giroa prest zegoen. Egoera artan eusko fueroan alde agertzea arrixku aundikoa zan, baña ala ere, eusko idazle ta legegizon batzuk, Madrill'en bertan, La Paz izeneko egunkaria sortu zuten, eusko fueroen aurka idazten eta esaten ziran guztiei erantzuteko. Izan ziran gure alde irtendako politikari ospetsuak: Mañ y Flaquer, Alejandro Pidal y Mon, Castelar eta abar. Baña Gobernuo buru zan Cánovas del Castillo'k arazoa azkar bukatu nai zuan eta eusko ordezkariak Madrill'a deitu ta lau billeretan konponketarik lortu etzanez, bakoitzak bere iritziak zituala; bi aldeek konponketa billa alegiñak egin zituztela, alkar ezagutuaz, izketaldiak bukatu ziran. Eusko fueroak erabat kentzeko gertutu zuten legea, Lege Bilzarrean eta Senadoan presaka, azkar ibilli ziran eta Benigno Moraza arabarrak eta Barrueta Aldamar gipuzkoarrak erakunde ayetan egindako itzaldiak gogoangarriak eta erantzun eziñezkoak izan arren, geiengo beayek zutenez, naiz eta itxurazko eta arra-

zoizko erantzun onik eman ez, fueroen arerioen bekaizkeri ta amorroa agertuz, 1876'ko uztaillaren 21'an, eusko fueroak kentzen zitun legea onartua izan zan. Lenengo atalean ala zion: Konstituzioaren eginbear bezela, legeak deitutakoan españar guztiak gudaritzara joatea ta bakoitzaren irabazbideen arabera Estadoaren kastoetarako ordainketa beartzea, Gipuzkoa, Bizkaya ta Araba'ko bizilagunei ere zabaltzen da, Nazioko beste guztiei bezela". Gudaritzara joan bearra ta zergak ordaindu bearrak, eta Batzar Nagusiak galeraziaz, mugak Ebro ibaitik Auñamendietara eramanaz, eusko Lege-Za a erabat deseginda gelditu zan. Ala ere, iru eusko lurraldeetako Batzar Nagusiek, batez ere Bizkai'koak aurka gogor egiñaz, oraindik iya beste urte bete iraun zuten, baña 1877'ko epaillaren 1Tan, beren alegin guztiak alperrikoak zirala ikusi zutenean, Aldundietako Aldun guztiak beren lekua utzi ta etxera joan ziran.

DIRU-ITUN EDO KONTZIERTO EKONOMIKOA

1876'ko uztaillaren 21'eko legeak zergak ordaintzea eskatzen zuan; España'ko Administralgoak Euskalerrria n egundano jaso etzuaneez, ordainketa edo kontribuzioa zuzen eta bakoitzaren irabazien arabera egiteko argibiderik eta zeaztasunik etzutelako, eta iru eusko lurraldeetakoek ala eskatu zitelako ta beste probintzietan bezela egitea eziña zala etsita zeudelako, zerga jasotze lana Aldundien esku utzi zuten, eta Aldundiek, agindutako diru-kopurua, Gobernuari zuzenean emango zion. Konponketa oni, Diru-itun edo Kontzierto ekonomikoa deitzen zayo eta urtean ordaindu bear dan diru-kopuruari, "kupoa" deritzaio. Askoren iritzi, diru-itun au, gure Lege-zarraren azken zati bat da, baña entzun dezutenez, Madril'go Gobernuari ala konbeni zitzaiolako egindako itun edo trato bat izan zan, ez Lege-Zarraren zati bat uztea. Lenengo diru-ituna, 1878'ko otsailla en 28'an egin zan. Bigarrena, 1887'ko ekaiñaren 29'an eta lenengo alako biko diru-kopuru edo kupoa jarri zuten: Iru-garren ituna, 1894'ko otsasillaren 1'ean jarri eta diru-kopuru berdiñarekin amairu urtetan egon ziran. Urren-go aldaketa, andik ogei urtetara, 1925'eko ilbeltzaren batean egin zuten ogeita bost urtetako iraupena izatekotan, baña andik amar urte terdira Franco'k 1937'ko ekaiñaren 23'an, Bizkaya ta Gipuzkoa'ri diru-itun ori kendu egin zien, Araba'ri leenean utzia. Diru-itun oiek garrantzi aundia izan zuten Euskalerrria' ren izae-ran, beste probintzietakoen zerga berdintsuak jaso arren,

ondo baño obekiago zaituz, diru orrekín milla aurrerapen egin ziran bertan.

ARANA GOIRI'TAR SABIN

1876'ko uztaillaren 21'eko legeak Lege-zarra erabat galduta, euskaldunak erdi-lotan bezela eta buru-makur zeudela, errietan noizean bein sortzen dan gizon aundi bat jaio zan: Arana Goiri'tar Sabin. Gurasoak karlistak ziranez, bera ta bere anai Luis ere ala izango ziran asiera batean, baña Luis'ek Sabino'k amazapri urte zituela galdera au egin zion: "Euskaldunok españiarrak ba'gera, zergatik guk Fueroak eduki ta besteek ez? Gu ez gera españiarrak, ez odolez, ez izkuntzaz, ez ta oituraz ere. Españiarrak ez ba'gera, zertarako nastu españiarren arazoetanT'. Sabino'k erantzun onik eman eziñik, ala esan zion: "Bizkaya'ren kondaira ondo ikasiko det eta egiaren atzetik joango naizela itz ematen dizut". Ala, urte osoan eusko kondaira ikasi ta ikasi jardun zuan eta arazoaz ondo jabetu zanean, ala esan zion anayari: "Naizen eta dudan guztia Bizkaya'ri eskeintzen diot eta berea duan askatasun osoa lortu arte lan egingo dudala ziñ egiten det, etxekoek, adiskideek, ondasunak eta bizia bera galduko ba'det ere. Jaungoikoa ta Lagi-Zarra izango da nere bizi guziko elburua". Emertzotzi urteko gazte batek emateko, ba-zan erantzuna! Sabino'ren bizitzak berak du itzaldi bateko gai osoa, baña ezin luzatu ta motx-motx ba'da ere, bere gertakizunik nagusienak adierazi nai ditut, bera izan bai zan eusko sena ta abertzaletasuna lo zorrotik esnatu zuan gizona! (1) 'abeja' izeneko aldizkaria sortu ta bertan agertu zitun bizkaitarrekin egindako lau burruken agerpenak eta lau idaz-lan ayek bildu ta liburuxka eran, 'Bizkaya por su independencia' izenarekin argitaratu zuan. Arrakasta aundia izan zuan eta irakurri zuten Bilbao'ko 23 jauntxok, bere iritzia obeto ezagutzeko, Larrazabal izeneko baserri jatetxean aparti bat eskeñi zioten. Aparti ondoren exerlektutik jeiki ta Larrazabal'go ziña irakurri zion: España'ren mende ta fueroek ankapetuta zeudela; lan ikaragarria zala erria esna-araztea, baña bizkaitarren laguntzarekin, aurrera ekingo zuala; beretzat etzuala ezer nai ta bere bizia pozik eskeintzen zuala bein eta eun aldiz, erria bere buruaren jabe egiteagatik. Gora Bizkaya'ren askatasuna oyu egiñaz bukatu zuanean, batzuk txaloka, besteak ixillik. Larrazabal'go gertakizun onek zabalkunde aundia izan zuan eta Sabino'ren gizatasuna ikusiaz, danak arriturik zeuden eta erri guztietatik deika asi ta abertzaletasuna pizten zijoan. Españiar agintariekin bein

eta berriz espexean sartuz, bere osasuna galdu ta ogeita emertzotzi urterekin, 1903'ko azaroaren 25'an ill egin zan. Ba-dakit Sabino bezelako gizon ospetsu batek, nik emen esan ditudan baño xeetasun geiago ematea merezi duala, baña itzaldia luze doa ta moztu bearra dago. Barkatu!

(1) Euskalerra'ren izaera ta egoera argi ta garbi ikusiz, garcantzi aundiko bi aitormen egin zitun: "Euzkotarren abercia, Euzkadi da" ta bestea, "Euzkotarren izkuntza, euskera da".

EUSKO FUEROA DEUSEZTATZEA LEGEZKOA ALDA?

Sabino'k ere egindako azía lur onean jausi zan eta arrigarrizko etekiña eman zuan. Euskalerra osoa erabat iya abertzale biurtu zan garayean, España'ko 1936'ko gerratea etorri ta dana ankaz gora joan zan. Andik onera gertatutakoak nik bezain ondo dakizute. Amaika txuri-gorri ikusi ondoren, Estatuto bat da-degu; Jauralaritza, Lege Bilzarra, Foru Aldundiak eta Lege Biltzarrak gureak ditugu, baña España'ren menpean gaude. Gure Lege-Zarra eskuratzeko oraindik asko palta zaigu: Muga Ebro ibayetik Auñamendietara eramana dago; gazteek gudaritzan España'ren morrontzan egon bear dute; zergak España'rentzat ere jasotzen ditugu; Estatutoak berak dituan eskubideak eskuratu eziñik gabiltza. Oker ori guztia, 1839 ta 1876'ko legeen ondorena da. Baña bi lege oiek bidezkoak ote dira gero? Nere iritziz, ez eta ara zergatik. Eusko lurraldeek Kastilla'rekin joatea, Erregeekin eta ez Gobernuekin egin oi zan itun edo tratu bat zan eta itun ura ezin aldatu ziteken, bi aldeak artaratzen etziran bitartean. Edozein kontratuetan bezelaxe, bi aldeek bete bearrekoak ziran baldintzak ba-zituzten. Kontrato bat aldatzeko edo urratzeko, bi aldeen baietza bear da ta bat bestea baño indartsuagoa dala ta indarkeriz aldatu edo urratutako tratua, indarrik gabea da. Eta baita ere, kontrato batean bi aldeetako batek bere bete bearrak egin edo betetzen ez ba'ditu, beste aldea, tratua deuseztatzeko eskubidearekin gelditzen da, bere loturak askatuta gelditzen dira. Aitatutako bi lege oyek, era ortan daude. Eusko lurraldeek Erregeekin egin zituzten itun edo paktoan, ez Madril'go Gobernuak eta ez Lege Biltzarrak, batere eskubiderik etzuten. Fueroa aldezteko ziña Erregeekin egiten zuten eta ez Gobernuak eta Lege Biltzarrak; beraz, eusko Fueroa aldatzeko edo deuseztatzeko, España'ko Erregearen eta

VI EUSKAL-ASTEA

eusko lurraldeetako ordezkarien artean egin bearreko lana zan. Are geiago: Bi lege oiek eman ziran garaiean, eusko lurraldeetan 40.000 gudari baño geiago zeuden. Indarkeri bat izan zan eta indarkeriak iñoiz ezin du lege indarrak izan.

EUZKADI TA ESPAÑA TA ESPAÑA TA IPAR-AMERIKETA

Euzkadi ta España 'ren arteko egoera, España ta Ipar-Ameriketa'ren artean gaur egun dan egoera berdiña zan. España'k Ipar-Ameriketa'rekin duan itun edo Tratadua, Errusia'k eraso ezker, bera baño indartsuagoa izanik, burrukarako laguntza izateko egiña da, Ipar-Amerika'k bide batez, bere gudari mordoa España'n edukiaz, Europa obeto zaitzeko egokiera ohea duala.

Eusko lurraldeek Kastilla'ko Erregeekin zuten itun edo paktoak, elburu berdin-berdiña zuan: nunnaitik etorri zitezkeen erasoei aurre emateko, beayek ziran baño indartsuagoko baten laguntza izatea eta España'k bide batez, bere gudari mordoa eusko lurraldeetan edukiz, Prantzia'ren erasoei azkarrago ta obeto erantzuteko egokiera zuala.

Diru aldetik alde pixka bat badago, baña onek ez du arazoa ezer aldatzen. Ipar-Ameriketak España'ri diru mordoa ematen dio; eusko lurraldeek España'ri, emandako laguntzagatik, dirua eskeintzen zioten.

Nik dakidala, amerikar Gobernuak ez du beñere bere lege ta erakunderik España'n ezarri arazi nai. Alderantziz, Kastilla'ko Erregeek beren legeak emen indarrean jarri nai zituztela eta, Lege au ez da guretzat edo Pase Foral izeneko erabakia artu bear izaten zuten.

Eta orain galdera batzuk: Amerikar Gobernuak España'ko legedia baztertu ta Ipar-Ameriketako legedia emen ezarri araziko ba'lu, españiarrak zer esango lueke? España'ko gazteek beren gudaritza Ipar-Amerika'ren gudarostean egitera beartuko ba-litue, españiarrak zer esango lueke? Urteroko zergak Ipar-Ameriketako gobernuari ematera beartuko ba-litue, españiarrak zer esango lueke? Ikastetxe guztietan ingelesez erakutsi ta erdera beste izkuntza bezela erakusten jarri araziko ba'lue, españiarrak zer esango lueke? Ori ta askoz geiago egiñak dira españiarrak Euzkadi'rekin: 1.—Lege-Zarrak ematen zizkigun eskubide guztiak kendu egin zizkiguten. 2.—Muga, Ebro ibaitik Auñamendietara eramane zuten. 3.—Gudaritza beren gudarostean egin arazi ziguten.

4.—Zergak ordaintzera beartu ginduzten. 5.—Gobernadore zibillak ezarri zizkiguten. 6.—Meatxupean, Madril'go Lege Bilzarrera ordezkariak bidaltzera beartuak izan giñan. 7.—Euskera galdu arazteko egiñal guztiak egin zituzten. Eta azken galdera: ipar-amerikarrek españarrei, españiarrek euskaldunoi egin dizkiguten guztia egingo la'liete, ez al lueke euskaldunok bezela, zor zaien askatasuna lortu arte, burruka bizian jokatu?

ANDORRA TA EUZKADI

Bi nazio oiek ba-dute alkarren artean alako berdintasun bat: Biak, España ta Prantzia'ren artean kokatuak daude; biak sei lurraldetan banatuak daude; biak Batzar Nagusi ta Aldun Nagusi batek zuzenduak dira; biak España edo Seo de Urgel'go Gotzaia ta Prantzia'rekin zer ikusia dute. Naiko antzekoak. Baña guk ez bezela, ayek beren askatasun osoa ondo baño obekiago zaitu dute. Eta ontan zer ikusi aundia, Andorra'n eskubide politikoak, bertan bizi ta andorrrar emakumeengandik jaiotakoak bakarrik ditezte. Andorrrak ogeita amar milla bizilagun baño geiago ditu, baña auteskunde garayean autarkia emateko eskubidea, zortzi milla andorrrar bakarrik dute. Urteetan bertan bizi ta bertan andorrrar emakumeengandik jaiotakoak ez diranek amaika alegin egiten dituzte, beayek ere eskubide politiko oiek edukitzeko, baña alperrik. Izan ere, ala izango ba'litz, urte gutxi barru, atzerritarrek jabe egingo lirake. Antzeko eskubideak dituzte ain aberatsa dan Kuwait'eko bertako seme-alabak; ori dala eta, urtero Gobernutik diru mordu aundia jasotzen dute. Zer gertatuko litzake bizi diranak edo bizitzera joan ditezkenak, eskubide berdiñak izango ba'lituzte? 1839'garren urtetik onuntza urte asko igaro dira ta une ontan era ontako bat ematerik ez litzake erreza izango, baña atzerritik etorritakoek bertakoen eskubide politiko berdiñak izatea egokia ez dala ta Andorra'n duten jokaera berdiña Euzkadi'n jartzea itxuragabekeri bat ez litzakela dioten abertzale zentzudunak ezagutzen ditut.

EMENDIK AURRERA ZER EGIN?

Orain arte esandakoarekin argi ta garbi gelditu da, Euzkadi'k España'rekin zer ikusirik ez duala, Alemania'rekin zer ikusirik ez duan bezela. Euzkadi España bezelaxe nazioa bat da ta bere buruaren jabe izateko eskubide osoa du. Zoritxarrez, eskubide oiek gu baño

askoz indartsuagoak diran Españi ta Prantzi'aren esku daude. Diran bezelakoak izan da, beayen eskutik askatasun osorik lortzea iya eziñezkoa da, baña nazio arteko eztabaidak zuzentzeko or dago La Haya'ko Laterri arteko Auzilekua. Kondaira aldetik ondo egindako azterketa sakon bat aurkeztu ezkeru, auzia gure alde epaituko lukela ziur nago. Ba-dakit baita ere, erabakia gure aldekoa izan arren, jaramon aundiegirik ez ligutekela egingo, baña erabaki ori edukitzea garrantzi aundikoa litzake.

Bestalde, España'ko 1978'ko Konstituzioak, eusko eskubideei buruz garrantzi aundiko zerbait dakarki: Erabaki iragankorretan (Disposición Transitoria), 144 atalean-2, ala dio: "Zerbaiten indarra izan dezaken añean, 1839'ko urrillaren 25'eko legea, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaya'ri dagokionean, deuseztatuta gelditzen da. Era berean deuseztatuta gelditzen da, 1876'ko uztaillaren 21-eko legea". Eta erantsizko erabakian (Disposición Adicional. Primera) auxe: "Konstituzioak, foru lurraldeetako historiko eskubideak zaitu ta agurtzen ditu. Foru erakunde oien gaurkotze orokorra, ala bearrean, Konstituzioaren eta Estatutoaren mugetan aurrera eramango lirake". Bi lege oiek deuseztatzea ta eusko fuero eskubideak berrezagutzea, pozgarria da benetan, naiz eta ori guztia, Konstituzioaren barruan jartzea, oso egokia izan ez, eusko-fuero-eskubideak Konstituzioan lekuri ez dutelako. Baña ego-aldeko Euzkadi'ren eskubideak España'k zanpatuta dituaneez, gure-gureak diran eskubideak lapurtu zizkigutenak eskubide oietako zati zat, Estatutoa, opari bezela eskeintzeak miñ eman arren, askatasun osoa lortzeko bide bat dala eta poztu egin bearko.

Ontara iritxi naizenez, 1960'garren urte-inguruan Paris'en Jose Antonio Agirre'lendakariaren nik eta Andoni Esparza elorriorak izandako izketaldia en berri emango dízuet: Guk berari egindako galdera auxe zan: Ta? Euzkadi'ra noiz? Ara bere erantzuna: Franco'k oraindik urte batzuetarako bizia ba-du, baña ba-da bere gaurko jokaera ortatik aldatu araziko dun zerbait; España'k ekonomi alorretan Europa'tik urrunduta ezin iraun dezake; diru-aldeetik bizirik egoteko, España'k Europa'ren bearra du ta Erroma'ko itun edo Trataduak, demokraziarik ez duan erririk barruan sartzen uzten ez. Beraz, Franco'k pixkanaka irikitzen joan bearra du edo bestela, bizi-eziñak irentsiko du eta demokrazi aldetik irikitzearekin batera, gu Euzkadi'n izango gera. Au noiz gertatuko dan? Aurrez ezin adierazi, baña gaurko egoe-

ra —ez gabetik goizera—, baña usterik gutxienean bai, aldatu ditekene ezaugarriak ikusten ari gera. Agirre'k izketan jarraitu eta errien Europa arazoa agertu zuan. Prantzia aldetik alako ixilkeri edo azpikeri pixka bat egon arren, Errien Europa sortuko da ta Europa ortan, erri guztiak bizibide berezia ta sakona izango dute. Zazpi eusko lurraldeek alkarrekin joatea izango dute ta beren errigintza, jakintza, diru-gaiak eta gizartekoak zabaldu ta indartzeko bide zuzenak izango dituzte. Beraz, jarraitu zuan Agirre jaunak—, Euzkadi'ren etorkizuna itxaropenez betea dakust. Ortara irixteko urte mordojoango dala? Gure asmoak gu bizi gerala erabakitzea nai degulako, bear ba'da, luze irudituko zaigu, baña Euzkadi'rentzat, kondairarentzat, oso epe motxa izango da.

Agirre jauna en itzak, igarle batenak dirudite, naiz eta oraindik, osotasun osoan ala erabakiak egon ez.

Berriz arira etor gaitezen eta ikus dezagun une ontan, eskubide oso ori eskuratzeko nola jokatu bear genduken. Euzkadi'gaur egun ditun arazorik latzenak —lanik-eza alde batera utzita—, España'ko espetxeetan dauden 500 euskaldunak, ETA'ren indarkeria ta askatasuna berreskuratzea dira. Espetxeratuaren arazoa, ETA'k burruka armatua uztearekin batera konpondua legoke, baña ETA'k ortara jartzeko, irtenbide egoki bat bear du; beren ustetan konponketa edo negoziazioa da bide on bat, baña España'k argi ta garbi esan die, politika konponbideak Eusko Lege Bilzarrekin egingo dirala. Beraz, ETA'ri irtenbide egoki ori, eusko alderdi abertzaleek eman bear die. Bi arazo oiekin lotuta dago Euzkadi'ren askatasuna berreskuratzea. Ez España'k eta ez Prantziak askatasun ori onez-onean emango ez dutela ba-dakigu. Elburu ori lortzeko, indarkeria bide egokia ez dala ere ikusia dago. Nundik jo? Lendabizi, 1978'ko Konstituzioak deuseztatuta utzi ditun 1839'ko ta 1876'ko uztaillaren 21'eko legeek, bete arazi; ori lortu ezkeru, Lege-Zarra bat-batean jarriko litzake, legeak eman eta bete arazteko indarrarekin; España'rentzat zergarik eman bearrik ez genduke izango; gazteek España'ko gudaritza egin bearrik ez lueke izango eta abar. Baña ba-dakigu, España'k ez duala orrelako erabakirik emango. Ezezkoa jaso bezin zoriz, La Haya'ko Laterri arteko Auzitegira jo. Bide batez, Gandhi'ren antzera, zentzuzko lagun talde batek aukeratzen ditun bide ixillak (resistencia pasiva) aurrera eramaten alegindu; ortarako, erri osoa eusko eskubideen arloan ondo baño obeto ezi. Adibidez, eusko gazteek gudaritzara, ez, dioten bezela "insu-

VI EUSKAL-ASTEA

misiogatik", Lege-Zarrean artara beartuak ez gaudelako, ez joatea erabaki. Ogeitaka milla gazte ez dituzte espetxeratuko. Urrengo bidea, urtero ordaintzen diran

zergak oso-osorik bertan jaso ta Madrill'a txakur txiki bat bera ere ez bidali, eta abar, eta abar.

Ezer lortuko ez gendukela? Ni baietzean nago, Besterik ez.


1991 - EGUTEGIA

- EGUNEROKO IRAKURGAIA
- EGUNEROKO URTEAGARRENAK
- EGUNEROKO SANTUAK ETA JAIAK
- LARUNBATETAN IGANDEKO LITURJI-GAIAK

BILBAO BIZKAIA KUTXAREN LAGUNTZAZ
ARGITARATUA

"EUSKERAZALEAK" GERTATUA

ESKATU BILBAO BIZKAIA AURREZKI-KUTXAREN DIRU-ETXE-ETAN. OPARIA DA



AUTESKUNDE-OSTEKO GOGAPENAK

AutesVundeen emaitzen aurrean poziV aurVitzen dira Alderdi guztietaraV jendeaV.

Ni, ez!!!

Alderdi bat besteaV baiño gorago igo dala? Ta, neri zer? Ni ez naz Alderdi-gizona. Ni Euzkadi-gizona naz. NeretzaVo AlderdiaV, EuzVadi'ren oneraVo erabilli daikedazan izkilluaV besteriV ez dira Nere lei guztien elburua, ez da Alderdi bat. EuzVadi, eta soilVi Euzkadi da, gizarte-bizitzari dagozkionetan, nere gurari danen asmo-burua.

Eta EuzkadiV galdu egin daula uste dot autesVunde auetan.

Idazlan au asteraVoan, ez da Sabindar-Alderdiaren zatiVeta, gogoan dodana, abertzaletasunaV egin daun, eta egiten ari dan, atzeraVada baizik.

1.¹: AutesVunde auetan españizaleeV abertzaleeV baiño autarki geiago atera dabez. 100.000 geiago! Alfontso Gerra'tarraV Españi guziari arro jaViñarazi dautson lez. Ikustekoa zan, ori esateraVoan ipiñi eban pozezVo aurpegia!

EuzVadi'ko Jaurlaritza ia-ia beraieV baVarrik osotzeko eran aurVitu dira españizaleaV oraingo ontan, beren alderdi guztieV irabazitako aulViaV —Legebatzerreko aulViak—, batu ezVero, aulki bat besteriV ez bait yaVe peitu Jaurlaritza osotu aal izateVo!

Agian badaiteVe atzeraVeta orren sustraietaVo bat Alderdiaren zatiketa ura izatea. Bearbada zatitutaVo Alderdi Sabindarraren buruVideeV, batzueV beste alderdiVideeV Ventzea, geiago euVi bait dabe gogoan, oraindiV Abertzale ez dan EuzVadi'ren erdi ori abertzaletasunera eraVartzea baiño.

Baiñan ez da ori arrazoi baVarra. AspalditiV, buruVideeV jerarViraVo joera geiago izan bait dabe profezigintzaraVo baiño. EuzVadi'V berriz gaurVo egunez profetak bear dauz Jerarkak baiño geiago.

"Jerarki" itzaV "agintaritza" esan gura dau. "JerarVak", beraz, "agintariaV" dira. JerarVa sabindarren elburua, Euzkadi asVatasun osora eramatea da. Ala edo ola, urtetiV urtera al dan eran, baiñan asVatasun osora. Baiña EuzVadi'ren erdia españizale dalariV, EuzVadi'ren asVatasuna, lortzea amestu ere ez daiVegun gauza da.

Españizale oieV euzVadizale biurtzea profeten eginVizuna dogu. Profeta, egia oiuvatzen daun gizona da; eta egi ori maitatzera gizaVumeen biotzaV eta gogoav eramaten dauzana.

OrregaitiV, profetaV bear dauz orain EuzVadi'V, eta, ez, JerarVaV. ZertaraVo dauz une ontan Euzkadi'V jerarkaV, bertaVo jendearen erdia bere askatasunaren aurVa ba'dauVa?

Profeta izatea ordea, oso eginVizun gaitza da. AtsegiñiV atsegiñena berriz jerarkian egotea!

2. Zuzen-zuzenean EuzVadi'ren aurka sortu da "Unidad Alavesa" deritzan Alderdi ori ere. Bere asmoa, len Naparroa bereizi zan bezala, orain Araba EuzVadi'gandiV bereiztea da. Ta, indarriV aski artuVo ba'leu, Araba EuzVadi'rengandiV bereizi, eta Naparroa'reVin alVartuVo leuVe, eta Naparroa'tiV aterata Errioxa'reVin edo Leon-Gaztela'reVin, Naparroa'n abertzaletasunak indar artuVo baleu. Españizale utsaV besteriV ez dira ba bere zuzendariaV, Moscoso, aurrena franVotar, gero "partido-popular"tar izan dan, bere sortzaille galiziarraigandik asita.

Iru ordezVari atera dauz LegebatzarreraVo. Baneban niV geiago ateraVo ebazalaren bildurra! Oso egoVi jardun bait dabe, bere "profetek", gura ebena lortzeVo. TxatxuVeria besteriV ez dabela esan? Kontuz! Jakin dabe nori mintza eta nola mintza.

ArabarreV, ez daVit zergaitiV, beti izan dabe, siVologilariek "inferiority complex" edo "Voxkor-ustea" esaten deutsoen, buru-barrengo VezVa ori. Ez daVit zergaitik. Araba, Errioxa'tik Gorbeia'ra eta Arzeniega'tiV Urbasa'ra, lurralde eder polita bait da. Eta aberatsa. Laterri guztiVo "renta per capita" edo "aberastasun banatuan", azkeneVo urteotan aurreneVoa izan da, eta naiz igaz Balear-Ugarteek bere gaiñetiV irten, turisketaVo igiVundea goitiV-beera zilipurdiVa jausi dalaVo, Araba izango da berriro aurrenekoa.

Ez dakit ba zergaitiV, baiñan arabarreV badabe VoxVor-usteVo sentipen ori. Eta ortaz baliatu dira, bai ederto gaiñera! "unidad aavesa"tarren profetaV.

Arabarren sentimentuei egin dautsee berba; ez arabarren adimenei.

Alatagutziz oraindiV abertzaleeV autarki asVo atera dabezala? Bai. Baiñan orreV ez daust alaitasun aundiegiriV emoten, autarVi oien emailleaV ere zenbaiterañiVo abertzaleaV diran ez bait daVit. GeienaV estatuto utsa borobiltzeareVin guzia egiña dogula uste dabe. Eta ori, estatutoa, abertzaleentzat asVatasunerako bidea besteriV ez da. Gure gudariek BizVaiVo mendietan ez eben bizia estatuto batengaitiV emon.

AutarVi ori emon dabenen artean, geienak españolaV dirala uste dabe. Baiña eusVotarran aberria ez da Españi; EuzVadi baizik.

Baietz! JerarVaV ez baiña profetaV bear dauzala gaurVo egunean EuzVadi'V.

OUTOKUMPU COPPER: LANGILEAK EUSKARAREN ALDE

Izkuntz normalkuntzaren aldeko erantzuna eta laguntza eskatu zion, adostasun osoz, Zaratamoko lantegi onetako langileen komiteak joan zen uztailean enpresari igorritako komunikazio batetan. Erantzuna aste onetan jasoko duten ustetan ikastaroak, euskalduntze naiz alfabetatzeri zuzenduak, prestatzen asiak dira dagonekoz.

Euskararen arazoa, komitekoen esanetan, ez da eskolaren mundura, edota etxeko sukaldera, sungatzen. Enpresaren eremuan ere izkuntz normalkuntza plantatu bearra dago "Euskal Errian dagoen enpresak euskararen arazoa ere bere gain artu bear bait du".

Enpresa barruko izkuntz normalkuntzari ekiterakoan aurrelana burutu dute, euskalduntzeko eta alfabetatzeko prest dauden langileen zerrendak bilduak, ikas taldeak antolatuak. Enpresaren erantzunaren zai daude plana bideratzeko.

Langileen ordezkariak jakinarazi dutenez, gogoan artzekoa da gai oni buruz komitean eman den adostasuna, ontzat eman bait dute uztailean prestatutako plana.

Lantegi onetako zuzendaritza nagusiak gai oni buruz emango duen erantzunaren zai daude langileak ikastaroek ekiteko. Izkuntz normalkuntzaren aldeko erantzunik jasotzen ez badute komiteak orokorki planteatuak dauzkan esijentzia eta eskaerarekin batera sartuko lukete euskararena, "baina ez dugu uste onetara jo bearrean izango garenik".

Lantegirako prestatutako planak onako eginkizunak jasotzen ditu: euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, barnetegietan ikasteko aalbidea, enpresako materialaren elebiduntzea eta enpresarekin arremanak euskaraz bideratzeko antolaketa egokia.



GIZASEME ON ETA JAKINTSU BATEN ILLETETAN

Aita Justo Mokoroa, azaroaren 5'an il zan Bilbon. 1901 1'ko maiatzaren 28'an jaio zan Tolosa'n, beraz 89 urte ebazala itxi eban lur gaiñeko bizitza. Biaramonean egin jakozan illetak Bilbo'n, Aita Eskolapiotarren l'kastetxeko eleizan. Lekaide ta apaiz askok artu eban parte, J.M. Uriarte, Gotzain-laguntzaillea, meza-emolleen buru zalarik. Euskal meza dotore sentikorra.

Liburu Santuak gizaseme aunditzat kantatzen ditunen artekoa zan Aita Justo. Ona, Jainkoaren eta lurtarren aurrean; langillea, egundo geldi ez egoala. Meza emoillean, aren birtuteak goraltzerakoan, bikain be bikain adierazo eban, Jainkoa eskolapiotar lez eta Euzkadi erritar lez bene-benetan maite izan ebazala; merezi zitula beraz gure biotzen omenaldi samurrak.


Jakitun zalarik apala genduan. Eta ba-dakigu, arroak uxatu dagi ta apalak erakarri. Or zergaitik batu gintzazan bere illetetan ainbat eta ainbat, euskalerrri osotik, meza-emoille ta kistar laiko, gizon lau, apal eta maitekor ari azken agurra esaten. Bai, esker ona adierazo nai izan genduan guztiok geure otoitz eta kantuetan. Biotzak ba-daki maite dauanari ondo-naia erakusten.

Illeta orduan asko ziran emen bertan, mutiko zirala, ikasiak; Juan Mari gotzain-ordea, orreitako bat. Errez jakon, ba, une aretan bere irakaslea zintzo-zintzo goraltzea. Ona, aren itzalditik batuta, pentsamentu eder bi. "Jainkoa ta aberria —iñoan— txorta bateko lora bi dira; Jainkoari ta aberriari lurrun bardiña darioe" Aita Justok, beraz, Jainkoa maitatzean bere aberria be, onek dakazan ondoren guztiakaz —erlejiño, lur-izkuntza, gizar-te, kanta, lege ta abarrez— maite izan bear.

Ba-dira orretan muker dabiltzanak, eta ez dira erredugarri. Aita Mokoroa'k umetatik ekazan maitasun biok, naiz berton naiz erbestean, beti zaindu zituan. Euskaldun ugari dira munduan, euskalerritik urrin, zoritxarrez askok laster aztu oi dabe euren izkuntza, geure amasa, goi-espirtua. Eta Jainkoa? Arnasa jagon ezik, errez galtzen jatzu bameko goi-sua be. Aita Justo urte askotan bizi izan zan Txile'n; an batu ebazan liburuetan eta gero emen, ondoren liburu galant bitan, ORTIK ETA EMENDIK, euskeraz eta erderaz, "Repertorio de Locu-

ciones del Habla Popular Vasca" —Labayruk, Eusko Jaurlaritzak eta Etor'ek argitaratuak— lenengoak 1630 orrialde ta bigarrenak 1455. Lan ikaragarria, apurka apurka burutua.

Liburu au argitaratzen ebiltzala joan nintzakion ni ikusten eta pozik baiña urduri samar aurkitu neban. Zergaitik urduri, baiña? Esan eutsoenez, berak egindako lanari ikuturen batzuk egin nairik ebiltzan norbaitzuk; eta berak ez eban olakorik, nai, eta errazoiz. Gizon jakintsua zan, zentzun aundikoa... Eta orain dakugunez, ondo, zeatz eta eder egiña dago bere lan erraldoia. Eta obetzeko ala kakazteko lan orretan eskuak sartu nai? Baita esan eutsoen *atxeak* sartu gurarik ebiltzala be... Ez egoan orretan; berak jaso zituan esakunak *atxe* barik batu ebazan. Beraz, *atxe* barik jasoak, ez beie *atxerik* eroan. Ortaz oso zeatza genduan.



OMENEZ

Ille bi legez kaleratu zan liburua... Aren poz bete! Eder-ederra iruditu jakon. Ume eder txanbeliña, berak euskal literaturari eskiñia. Gurasoak seme bat mundura ekartean pozez gainezka egon oi dira; antzeko pozak indartua, adoretua aurkitu zan Aita Justo, Jainkoari esker beroak emonaz, *Nunc Dimittis* pozkor bat abesteko gertu. Onek luzatu egin eutson lendik aul be aul ekarren bizia. Baiña lege danez, eguzkiak sartu bearra dau illuntzean, baita gizasemeak be urte-sortaz astuntzean. Esan dogu: 89 urte eukazan Mokoroak il zanean.

Naigabetan geratu zan euskal erria, beti be mingarri jakulako olako gizonen amaia. Guk, alan be, illeta meztan onela asi genduan sarrera kantua: "Zure etxera goaz, Jauna. Auxe da poza daukaguna". Eta abeslari bakarrak:

Au nere poza entzutean:
"Jaunarenera danok goazen;
Ara nun orain zure atean,
Emen gaituzun Jerusalem.

Koruak barriz: "Zure etxera..."

Uri bildua, uri argi,
Gure biotzen lotugarri;
Zure erritarrak lerroz lerro
Zugana datoz biotz bero.

Ondoren *Kyrie eleison*, Justo Aitak berak nai ebanez. Erri Otoitza: lau euskal estrofa sei bertso, txit sentikor abestuak. Biztu da Kristo, Aleluia. "Santus" latinez, euskeraz oso-osoan jarraiturik. Jaunartzerakoan, iru apaiz Jauna erriari emoten, eta apaiz meza-emoilleak altaran bertan, ogi ta ardao irudipean Kristo banan-banan artzen. Eta eleiz barrua kantu gozozko durunduz eder.

Azken otoitz aurretik, Paulin Solozabal, apaiz bertsolaria kantari. Abots zoli gozotan iragarri euskuzan illa en do ta trebetasun bikaiñak. "Agur, Jesusen Ama"... "Agur, Jaunak", txistulariak lagunduta. Gotzain jaunaren azken itzak. Eta "Agur, Justo Mari Aita, Egun Aundirarte!!

A joan jakun, baiña gugaz geratzen da bere lan oparoa. Eder-senez aberatsa zan, berak osoturiko lanak, euskeraz nai erderaz, erakusten daukuenez. Naiko idatzi eban bietara. Liburu bikain bi bereak or ditugu: "Genio y Lengua", 1936'an argitaratua, eta "Ortik eta emendik", aitatu doguna, aurten argitara emona. Lenengo euskera kinka larrian ikusita, emen idatzi eban; andik laster, gerra zala-ta, Frantzi'ra jo eban. Beloke n eta Akiz'en bizi izanik. Bere lenengo liburua ixilka

zabaldu zan. Bigarrena, geiena beintzat, Kepa Berakoe-txea, bilbotar karmeldarrak be zerbait lagunduta, Txile'n atondu eban, asi ta amaitu bikain eta dotore egiñik.

Aberatsa da euskera, munduan izkuntza aberatsik bada. Ainbeste zizkimizki ta zaparrada arturik, eukan aberastasun ori galtzeko arriskuan geunkan: gure esakun eta esamañetan daukagu batez be aberastasun ori eta euskal idazle gazteak ez dakusguz geiegi zaletuak, erderara geiegi joak baiño. Esaerok elebitan, euskeraz eta erderaz dagoz, ikasteko ta ulertzeko aukera betean.

Euskerazale porrokatua zalako, gartzetan asi zan, goiz-eguzkia lez, dizdiz egiten, askorentzat idazle fiña izaten; garai orretan, Donostia'ko "Euskal Esnalea", "Zeruko Argia", "Argia" -n idazten eban batez be, eta Iruña'ko "La Voz de Navarra"-n "Biar" eta antzeko ez-izenak erabilliz.

Gizatier lez on-bera zan, biotz zabala, maitekor eta alaia, iñori kalterik egiteko gai etzana. Nik Tolosa'n ezagutu neban 1956 garren urtean. Bere arrebak liburu-denda eukien Tolosa'n, eta an alkar ikusi genduan lenengoz. Nik "Milla Euskal Olerki Eder" argitara emona neban, eta liburutegi aretan be saltzen eben, eta egun baten an gintzazan biok, autu gozotan. Poz-eztitan egoan nik liburu mardul orretan bere iru olerti sartu nebazalako, ots, "Agur, Jaunak!", "Euskaldunaren eresia" eta "Azken -Agurra"; geroztik adiskide miñak izan giñean: ni Bilbo'ra nentorrenetan nekez gelditzen nintzan ari ikustalditxo bat egin barik. Auto atsegiña eban beti.

Akino'tar Toma deunak dirauskunez, jakitunak eta adiskideak, lur onetan eukia, beteagoturik eukiko ei dabe. Izan bedi orrelaxe Mokoroa on!

AITA ONAINDIA

GABON ZORIONTSUAK

ETA

URTE BARRI BAKETSUA

OPA DAUTSEGU GUZTIAIA

EUSKERAZALEAK

INIGO'REN LORATXOAK INIGOTEN NEBA-ARREBAK

Loiola'ko Beltran eta Likona'ko Marina'ren seme-alabak amairu izan zirala eta danetatik Iñigo txikiena, ziur dakiguna da.

Baina kondairalariak Iñigo'ren neba-arreben izenak emoterakoan ez datoz batera. Guk danai entzun ondoren zerrendarik zuzenena au dala esango geunke:

1. Joan Loiola'koa

Anaien artean zarrena. Etxaguntza eskubideak bere anaia Martin'en eskuetan itxi, eta bere itsasontziarekin Italiako lurraldera "El Gran Kapitan" zanaren agindupean guda egitera joan zan. Napoles'en il zan 1496n. urtean. Bi seme itxi ebazan: Andres sasi-semea, eta Beltran legezkoa.

2. Martin Oñaz'koa

Loiola'ko jauna. Bergarako Madalena Araoz'tarra ekin ezkondu zan. Fernando katolikuak, Nafarroako errege Joan de Albret'en aurka guda egin zuanean, Loiola'ko Martin'ek Belate'ko burrukaldian esku artu eban. Bederatzi urte geroago bere anaia Iñigo eta beste 50 azpeitiar arma-gizonekin Iruña'ko gaztelua babestera joan zan. Iñigo, dakigunez, burrukaldi aretan zauritua izan zan, baina Martin, erasoaldia asi aurretik, bere menpekoekin etxera itzuli zan, Iruña'ko zaindaritzan "berak merezi eban ainbateko kargurik" emon ez eutsoelako.

Urte a etan bertan Martin'ek Hondarribia'ko gaztelua zaintzen gartsu jokatu eban, azkenean menperatua izan ba'zan be...

Loiola'ko bere dorre-etxean il zan 1538. urtean, 61 urte zituala. Lau seme eta lau alaba legezko itzi zituan, eta bi sasiko.

3. Beltran Loiola'koa

Gaztetan batxiler ikasi eban, baina gero gogoa aldatus, bere anaia zarrena legez, Napoles aldera soldadu jokatzera joan zan, eta an il zan.

4. Hernando Loiola'koa

Onek Ameriketako bidea artu eban 1510. urtean, eta Panama lurraldean laster il zan.

5. Otxoa Loiola'koa

Bizitza irabaztera Flandes aldera joan zan. Andik itzuli eta Kastillako erregin Joana en gudarostean izena emon eban. Azkenean bere dorre-etxera etorri eta emen il zan.

6. Joan Beltran. Sasikoa

7. Pero Oñaz'koa

Eleiz-gizon egin zan. Iñigo'ri gaztetako okerkeri eta zorakerietan lagundu eutsan. Iru aldiz joan zan Erroma'ra Azpeitia'ko parrokia en gainez uste ebazan eskubideak zaintzera. Irugarren ibilaldian etxera etorrela Barzelonan 1529. urtean il zan. Bi ondorengo itxi ebazan: Beltrantxo eta Potentziana.

8. Iñigo Loiola'koa

Gure santua. Bere iñude Garin'go Mariak diñoenez 1491. urtean jaio zan. Eta Erroma'n il zan 1556. uztaillaren 31n. egunean.

9. Joaneiza

Alaben artean zarrena. Azpeitia'ko notari zan Joan Alzaga'koa ekin ezkondu zan. Ez ekien idazten.

10. Madalena

Antzuolako notari zen Joan Gallastegi'koa ekin ezkondu zan. Erromatik Iñigo'k, eskutitzekin batera, jainkotiar oparitxoak bialtzen eutsazan, maitasunaren ezaugarri.

11. Maria Beltran

San Migel baselizako serora izanik, Domingo Arraio'koa ekin ezkondu zan. Sasi-alaba zan.

12. Petronila

Elgoibar'ko Pedro Arriola'koa ekin ezkondu zan.

13. Santxa

Txikitan il zalako edo, onen barririk ez, la agertzen.

IÑAKI GOIKOETXEA, S.J.

Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA-A IJE AHORROS
VIZCAINA